

**OSASUN SAILA****2119**

AGINDUA, 2006ko martxoaren 21ekoa, Osasun sail-buruarena, sanitare-arloko profesionalen prestakuntzarako beka eta laguntzak emateko deialdia egiteko dena.

Osasun Sailaren helburuetariko bat sanitare-taldearen prestakuntzaren bidez sanitare-zerbitzuen kalitatea hobetzea da. Halaber, ikerketa funtsezko elementutzat jotzen da Euskadiko sistema sanitarioaren garapenean.

Hori dela eta, Osasun Sailak epe luzerako estrategia bat planteatu du bai pertsonal sanitarioa bere lan-praktikan gaitzeko, bai ikerketarako prestakuntza bultzatzeko ere, gerora Euskadiko sistema sanitarioaren ikerketa-komunitatean partaide izan dadin.

Deialdia helburu horiek betetzeko egiten da, hain zuzen ere espezializazio-ikastaroak eta egonaldiak nola ikerketarako prestakuntzarako planak diruz laguntzeko.

Horren ondorioz, honako hau

XEDATU DUT:

**1. artikulua.**– Helburua.

Agindu honen bitartez, osasunaren arloan ikerketarako prestakuntzako planak gauzatzeko beka eta laguntzak emateko araubidea arautzen da eta horien deialdia egiten da. Prestakuntzako planak 2006an hasiko dira, bi modalitate daudela:

A) Ikastaroak eta egonaldiak atzerriko zentroetan egiteko beka eta laguntzak.

B) Osasunaren arloan ikerketarako prestakuntza-planak gauzatzeko beka eta laguntzak.

**2. artikulua.**– Onuradunak.

Agindu honetan begiesten diren beka eta laguntzak erdi- edo goi-mailako unibertsitate-tituludunek jaso ahal izango dituzte, eskabidea aurkeztu baino urtebete lehenagotik gutxienez Euskal Autonomia Erkidego-ko udalen batean erroldaturik badaude.

Beka eta laguntzak emateak eta hartzeak ez du kontratu edo estatutu bidezko inongo harremanik ezarriko onuradunaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren artean.

Jasotzaileei ezingo zaie diru-laguntzarik eman edo ordaindu, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoak eta bere erakunde autonomoetako Administrazio Orokorrak emandako laguntzen edo diru-laguntzen esparruan, izaera bereko itzultze edo zigortze prozeduraren bat bukatu gabe bada.

**DEPARTAMENTO DE SANIDAD****2119**

ORDEN de 21 de marzo de 2006, del Consejero de Sanidad, por la que se convocan becas y ayudas para la formación de los profesionales sanitarios.

El Departamento de Sanidad tiene entre sus objetivos promover la mejora de la calidad de los servicios sanitarios mediante la formación del colectivo sanitario. Así mismo considera la investigación como otro elemento fundamental en el desarrollo del sistema sanitario de Euskadi.

Por ello, el Departamento de Sanidad se ha planteado una estrategia a largo plazo para capacitar al personal sanitario en su práctica profesional así como impulsar su formación en investigación para incorporarse posteriormente a la comunidad investigadora del sistema sanitario de Euskadi.

La presente convocatoria se realiza para cumplir estos objetivos, subvencionando cursos y estancias de especialización así como planes de formación en investigación.

En su virtud

DISPONGO:

**Artículo 1.**– Objeto.

Mediante la presente Orden se regula el régimen de concesión y efectúa la convocatoria de becas y ayudas para la realización de planes de formación en el ámbito de la salud, que se inicien en 2006, con dos modalidades.

A) Becas y ayudas para la realización de cursos y estancias en centros extranjeros.

B) Becas y ayudas para la realización de planes de formación en investigación en el ámbito de la salud.

**Artículo 2.**– Personal beneficiario.

Podrán acogerse a las becas y ayudas contempladas en la presente Orden las personas con título universitario superior o medio que figuren empadronadas en un municipio de la Comunidad Autónoma del País Vasco con, al menos, un año de anterioridad a la fecha de presentación de la solicitud.

La concesión y disfrute de las becas y ayudas no establecerá relación contractual o estatutaria alguna entre la persona beneficiaria y la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La concesión y, en su caso, el pago de las becas y ayudas a las personas beneficiarias quedarán condicionados a la inexistencia de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

### 3. *artikulua*.— Emate-prozedura.

Bekak eta laguntzak ematea azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 51.4 artikuluan aurreikusitako lehiaketa-prozeduraren bidez gauzatuko da. Dekretu hori azaroaren 11koa da eta onartu egiten du Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina. Hori horrela, modalitate batean eta bestean aurkeztutako eskabideak erkatuko dira eta, 11. artikuluan finkatutako balorazio-irizpideak aplikatuz, eskabideak lehentasun-hurrenkeran jarriko dira. Diru-laguntzak, balorazio-fasean gutxienez hirurogei (60) puntu lortzen dituzten eskaerei emango zaizkie, horretarako dagoen diru-kopurua agortzen den arte.

### 4. *artikulua*.— Baliabide ekonomikoak.

Agindu honen deialdia finantzatzeko baliabide ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan helburu horretarako bideratutako aurrekontu-kredituetatik datoz, eta guztira 206.600,00 euro dira (berrehun eta sei mila eta seihun euro). Modalitate bakoitzari % 50 emango zaio.

Aipatu zenbatekoa gehitu ahal izango da, eskatutako diru-laguntzen zenbateko osoa kontuan hartuta, deialdi hau ebatzi aurretik Osasun Sailaren beste laguntza-programa batzuk gauzatutakoan, aurrekontuan agortu gabe gera daitezkeen diru-baliabideen arabera. Osasun sailburuordearen ebazpen batek emango du horren berri.

Modalitateetako baten deialdia behin ebatziz gero, baliabide-soberakinik geldituko balitz, ebatzi gabeko beste modalitatearen dotazioa puzteko erabil liteke. Zirkunstantzia hori gertatzen bada, bere publizitatea egingo da Osasun sailburuordearen ebazpenaren bidez.

### 5. *artikulua*.— Jarduerak eta gastu finantzagarriak.

1.— Laguntzak, prestakuntza-planaren garapenean onuradunak sortutako gastuetarako emango dira, hala nola bidaia, matrikula, ostatua, material-erostea, eta abarrerako.

2.— Onuradunak inolako lan ordaindurik egiten ez badu, beka osagarri bat lortu ahal izango du gastuetarako laguntza ekonomikoarekin batera. Onuradunak prestakuntza-planean diharduen bitartean jarduera ordainduren bat gauzatuko balu, gastuetarako laguntza ekonomikoa soilik lortu ahal izango du.

3.— Bekaren helburua, prestakuntza-planak dirauen artean, onuradunaren mantenu-gastuak finantzatzea da.

4.— Gehienez ere urtebeterako emango da beka. Prestakuntza-planaren iraupena luzeagoa balitz, beka amaitu ostean, onuradunak beste beka bat eskatu ahal izango du, aurrerago egingo diren deialdietan aurreikusitako denarekin bat etorritz.

### *Artículo 3*.— Procedimiento de concesión.

La concesión de las becas y ayudas se efectuará por el procedimiento de concurso previsto en el artículo 51.4 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco. A estos efectos la concesión se realizará mediante la comparación de las solicitudes, separando las peticiones presentadas a una y otra modalidad, a fin de establecer una prelación entre las mismas atendiendo a los criterios de valoración fijados en el artículo 11, y adjudicando, hasta donde alcancen los créditos asignados, únicamente ayudas a aquellas que alcancen un mínimo de sesenta (60) puntos, en la fase de valoración.

### *Artículo 4*.— Recursos económicos.

Los recursos económicos destinados a la financiar la convocatoria de la presente Orden proceden de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, ascendiendo a la cantidad de 206.600,00 euros (doscientos seis mil seiscientos) y distribuyéndose al 50% para cada modalidad.

El expresado importe podrá ser incrementado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades económicas no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Sanidad, con carácter previo a la Resolución de la Convocatoria. De dicha circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Sanidad.

Si resuelta la convocatoria de una de las modalidades existieran recursos remanentes, éstos podrán destinarse a incrementar la dotación de la otra modalidad aún sin resolver. De producirse dicha circunstancia se dará también publicidad de ella mediante Resolución del Viceconsejero de Sanidad.

### *Artículo 5*.— Actividades y gastos financiables.

1.— Las ayudas se concederán para gastos generados por la persona beneficiaria en el desarrollo del plan de formación, tales como gastos de viaje, de matrícula, alojamiento, de adquisición de material etc.

2.— En aquellos supuestos en que la persona beneficiaria no desarrolle trabajo remunerado alguno, podrá acceder a una beca complementada con una ayuda económica para gastos. En aquellos otros casos en que la persona beneficiaria simultanee las actividades formativas con el ejercicio de una actividad remunerada, sólo podrá acceder a la ayuda económica.

3.— La beca tiene como finalidad financiar los gastos de manutención de la persona beneficiaria durante el desarrollo del plan de formación.

4.— La beca se concederá para un período máximo de un año. Si el plan de formación tuviera una duración superior, la persona beneficiaria podrá, finalizado el período de disfrute de la beca, solicitar una nueva, de acuerdo con lo que se prevea en futuras convocatorias que en su momento se realicen.

**6. artikulua.**– Beken eta laguntzen diru-hornidura.

1.– Beken diru-hornidura gehienez hileko mila eta bostehun (1.500,00) eurokoa izango da.

Atzerriko ikastaroak eta egonaldiak hiru hilabetetik gorakoak izan eta familiarekin batera egiten badira, hileroko 300,00 euro arteko laguntza gehigarria, ez gehiago, jaso ahal izango da diru-sarrera propiorik ez duen seme-alaba bakoitzeko. Kasu horretan, eskabide-egileari bakarrik ordainduko zaizkio bidaia-gastuak, eta ez berarekin joango diren familiartekoei.

2.– Gastuetarako laguntzen diru-hornidura gehienez hileko zazpi mila eta berrehun (7.200,00) eurokoa izango da.

**7. artikulua.**– Beken eta laguntzen bateragarritasun-araubidea.

1.– Agindu honen babespean ematen den bekaren bat eskuratuz gero, ezin izango da lan ordaindurik egin, ez helburu bererako beste erakunde publiko nahiz pribatu batek emandako beste beka edo laguntzaren bat hartu, edo ez beka horiek berez eskatzen duten lana behar bezala burutzea galaraziko duen beste eginkizunen bat izan.

2.– Bestalde, laguntza hau helburu bereko beste edozein diru-laguntza batekin bateragarria izango da, betiere finantzatutako jardueratik ez bada gain-finantzetarik eratortzen. Horrelakorik gertatuz gero, gehienez murrizt dakioken kopurua murriztuko zaio diru-laguntzaren zenbatekoari.

**8. artikulua.**– Eskabideak: aurkezteko lekua, bidali beharreko agiriak eta onartzeko epea.

1.– Agindu honetako bekez eta laguntzez baliatzeko eskabideak I. eta II. eranskinetan dauden eredu normalizatuan, aukeratutako modalitatearen arabera, formulatuko dira eta Osasun Saileko Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendariari bidaliko zaizkio. Helbidea: Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz. Era berean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritakoari jarraituz ere bidali ahalko dira.

2.– Eskabidearekin batera, ondoko agiriak ere aurkeztu beharko dira:

a) Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia.

b) Curriculum Vitae laburtua.

c) Prestakuntza-plana, honako hauekin: gauzatzeko aurreikusitako jarduerak, B modalitatearen kasuan prestakuntza-plana zuzenduko duenaren ontzat emana edo txosten positiboa, eta aipatutako jarduerak sortuko lituzketen gastuen estimazioa.

**Artículo 6.**– Dotación económica de las becas y ayudas.

1.– La dotación económica de las becas podrá ascender a la cantidad máxima de mil quinientos (1.500,00) euros mensuales.

Para cursos o estancias en el extranjero superiores a tres meses, en el caso de desplazamiento con la familia, se podrá contemplar ayuda adicional de un máximo de 300,00 euros mensuales por hijo o hija sin ingresos propios. En este caso los gastos de viaje se abonarán solamente al solicitante y no a los familiares que le acompañen.

2.– La dotación económica de las ayudas para gastos podrá alcanzar la cantidad máxima de siete mil doscientos (7.200,00) euros mensuales.

**Artículo 7.**– Régimen de compatibilidad de las becas y ayudas.

1.– El disfrute de la beca que al amparo de la presente Orden se conceda será incompatible con la realización de cualquier trabajo remunerado o con la percepción de otra beca o ayuda que, para el mismo fin, pudiera ser otorgada por cualquier otra institución pública o privada y con cualquier ocupación que impida una adecuada dedicación a las actividades formativas subvencionadas.

2.– Por su parte, la ayuda será compatible con la obtención de cualquier otro tipo de subvención que se pudiera obtener para el mismo fin, siempre que de ello no se derive sobrefinanciación de la actividad financiada. Caso de producirse ésta, se reducirá el importe de la ayuda concedida hasta el límite máximo que corresponda.

**Artículo 8.**– Solicitudes: lugar de presentación, documentación a enviar y plazo de admisión.

1.– Las solicitudes para acogerse a las becas y ayudas contempladas en la presente Orden, se formularán, en los correspondientes modelos normalizados, según la modalidad elegida, que figura como anexos I y II y se dirigirán y remitirán a la Directora de Planificación y Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad, c/ Donostia-San Sebastián, n.º 1, 01010 Vitoria-Gasteiz, pudiendo asimismo, presentarse en las demás formas indicadas por el artículo 38.4. de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y de Procedimiento Administrativo Común.

2.– A la solicitud deberá adjuntarse la documentación siguiente:

a) Fotocopia del Documento Nacional de Identidad.

b) Curriculum Vitae abreviado.

c) Plan de formación con las actividades previstas realizar, con el visto bueno o informe positivo de la persona que dirigirá el plan de formación en el caso de la modalidad B, y estimación de los gastos que dichas actividades generarían.

d) Errola-ziurtagiria.

e) Zinpeko adierazpena, gauzatu beharreko prestakuntza-jarduerarako beste finantza-iturri batzuk eskuratu edo eskatu dituen ala ez argitzeko. Adierazpenak jasoko du ordaindutako lanik ez dagoela, helburu bererako beste erakunde publiko nahiz pribatu batek emandako beste beka edo laguntzarik ez dela hartu, edo beka horiek berez eskatzen duten lana behar bezala burutzea galaraziko duen beste eginkizunik ez dela.

f) Eskatzailearen lan-zentroko zuzendaritzaren alde-tiko prestakuntza-plana egiteko baimena, hala behar bada.

g) Eskatzaileak erantzukizunez aitortuko du ez duela zigor administratiborik edo penalik laguntza edo diru-laguntza publikoak lortzeko posibilitatea galtzeko, eta ez duela laguntza horiek jasotzen uzten ez dion debeku legalik.

Eskatzaileari diru-laguntza ematen bazaio, hirugarrenaren alta-inprimakia beteta aurkeztu behar du (II. eranskina).

3.- Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau indarrean sartzen denetik.

**9. artikulua.**— Eskabidean egindako akatsen zuzenketa.

Laguntzen eskabidea ez bada bere termino guztietan beteta edo exijitutako dokumentazioa falta badu, errekerimendua egingo zaio eskatzaileari, hamar eguneko epearen barruan akatsa zuzentzeko edo agindutako agiriak aurkezteko, zera ohartaraziz: eskatutakoa egiten ez badu, eskabidea bertan behera utzi duela ulertuko dela. Dena den, Administrazioa behartuta dago eskabideen gainean ebazpen adierazi bat hartzea eta ebazpena jakinaraztea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 eta 42.1 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

**10. artikulua.**— Eskabideen ebaluazioa.

1.- Aurkezten diren eskabideen ebaluazioa egiteko Balorazio Batzorde bat eratuko da, honako hauek osatua: Osasun Saileko Plangintza eta Antolamenduko zuzendaria, lehendakari gisa jardungo duena, eta laguntzaile gisa, Osakidetzako Etengabeko Prestakuntza arduraduna, eta Osasun Sailaren I+Gko Laguntzen arduraduna, azken hori, idazkari gisa ere jardungo dena. Batzorde horrek, eskabideen balorazio egokirako beharrezkotzat joko dituen txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu.

2.- Bere eginbeharra betetzeko, Batzordeak prestakuntza-plana osorik ulertzeko beharrezkotzat joko duen dokumentazio osagarria aurkezteko eskatu ahal izango dio eskatzaileari.

3.- Azkenik, Batzordeak, aurreikusitako balorazio-irizpideak aplikatuz, formulatutako eskabideak balora-

d) Certificado de empadronamiento.

e) Declaración jurada sobre la existencia o solicitud de otras fuentes de financiación para las actividades formativas a desarrollar. La declaración versará sobre la inexistencia de trabajo remunerado, la percepción de otra beca o ayuda para el mismo fin así como de cualquier ocupación que impidiese una adecuada dedicación a dichas actividades.

f) Autorización, en su caso, de la Dirección del Centro de trabajo al que pertenezca la persona solicitante para realizar el Plan de formación.

g) Declaración responsable de la persona solicitante de no encontrarse sancionada administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de ayudas o subvenciones públicas, ni se halla incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello.

Si al solicitante se le concediese la subvención, deberá aportar impreso de Alta de tercero cumplimentado (anexo II).

3.- El plazo de presentación de solicitudes será de un mes a partir de la entrada en vigor de la presente Orden.

**Artículo 9.**— Corrección de los defectos de la solicitud.

Si la solicitud no viniera cumplimentada en todos sus términos, o no fuera acompañada de la documentación exigida, se requerirá a la persona solicitante para que en un plazo de diez días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida en su petición, estando obligada la Administración a dictar resolución expresa sobre esta solicitud, así como a notificarla, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 71.1 y 42.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**Artículo 10.**— Evaluación de las solicitudes.

1.- Para la evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá la correspondiente Comisión de Valoración integrada por la Directora de Planificación y Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad, que actuará como presidenta, y como vocales por el Responsable de Formación Continuada de Osakidetzeta-SVS y el Responsable de Ayudas en I+D del Departamento de Sanidad, que actuará, además, como secretario. Dicha Comisión podrá solicitar los informes técnicos que considere necesarios para una adecuada valoración de las solicitudes.

2.- Para el cumplimiento de su cometido la Comisión podrá requerir a la persona solicitante la presentación de la documentación complementaria necesaria para la cabal comprensión de plan de formación.

3.- Finalmente, la Comisión en aplicación de los criterios de valoración previstos, evaluará las solicitudes

tuko ditu eta Osasun sailburuordeari dagokion ebazpen-proposamena helaraziko dio.

**11. artikulua.**— Esleipenerako eta kuantifikaziorako irizpideak.

1.— Beken eta laguntzen esleipena irizpide hauetan oinarriturik eta ondoko baremo honen arabera egingo da:

a) A) modalitateari atxikitako eskabideak.  
— Eskatzailearen Curriculum Vitae—a: 20 puntu gehienez.

— Ikasketak egingo diren zentroaren edo erakundearen prestakuntza—kalitatea: 20 puntu gehienez.

— Egin beharreko ikasketen hurbiltasuna ondoan zehazten diren lehentasuneko arloekiko:

Zerbitzu sanitarioen antolamendu eta kudeaketa, Sanitateko eta teknologia berriko zerbitzuen ebaluazioa, Osasun Publikoa eta Osasunaren Sustapena, Erizaintzaren antolamendua, kudeaketa eta ebaluazioa, Osasun Planaren lehentasun—helburuak eta Asistentzia—kalitatea: 20 puntu gehienez.

— Egonaldiak edo ikastaroak eskatzailearen lan—jardueran duen erabilgarritasuna eta egokitasuna, eta ikasketak—planaren kalitatea: 40 puntu gehienez.

b) B) modalitateari atxikitako eskabideak.  
— Eskatzailearen Curriculum Vitae—a: 20 puntu gehienez.

— Proposatutako prestakuntza—planaren kalitatea: 50 puntu gehienez.

— Prestakuntza—plana iraupen luzeagoko espezializazio—programa batean sartuta egotea: 10 puntu gehienez.

— Eskatzailea Euskadiko sistema sanitariokoa izatea, egoiliar gisa egonda espezialitatea azken bi urteetan bukatutako osasun—arloko profesionala izatea, edo erizaintzako ENI lizentziatura izatea: 20 puntu gehienez.

2.— 6. artikuluan ezarri diren gehieneko zenbatekoek jaramon eginda eta aurkeztutako aurrekontuaren barruan —aurrekontu hori finantzagarri maximotzat hartuko da—, bekaren dotazioaren determinazio zehatza ondoko bi hauen arabera egingo da: finantziarioa eskatu den prestakuntza—planak iraungo duen aldiaren arabera eta plan hori burutuko den lekuetako bizimoduaren kostuaren arabera. Laguntzaren dotazioa zehaztuko da prestakuntza—plana egoki garatzeko behar den gastua kontuan izanda.

**12. artikulua.**— Ebazpena.

1.— Deialdia Osasun sailburuordeak ebatziko du, Balarazio Batzordearen proposamena aintzat hartuz.

formuladas y elevará al Viceconsejero de Sanidad la correspondiente propuesta de resolución.

**Artículo 11.**— Criterios de adjudicación y cuantificación.

1.— La adjudicación de las becas y ayudas se realizará sobre la base de los criterios y con la ponderación siguiente:

a) Solicitudes que se acojan a la modalidad A).  
— Curriculum Vitae de la persona solicitante: hasta un máximo de 20 puntos.

— Calidad formativa del centro o institución en el que vayan a realizarse los estudios: hasta un máximo de 20 puntos.

— Afinidad de los estudios ha realizar con las áreas prioritarias que se relacionan a continuación:

Organización y gestión de servicios sanitarios, Evaluación de servicios sanitarios y de nuevas tecnologías, Salud Pública y Promoción de la Salud, Organización, gestión y evaluación en enfermería,

Objetivos prioritarios del Plan de Salud y Calidad asistencial: hasta un máximo de 20 puntos.

— Utilidad y adecuación de la estancia o curso a la actividad laboral del solicitante y calidad del plan de estudios: hasta un máximo de 40 puntos.

b) Solicitudes que se acojan a la modalidad B).  
— Curriculum Vitae de la persona solicitante: hasta un máximo de 20 puntos.

— Calidad del Plan de Formación propuesto: hasta un máximo de 50 puntos.

— Inclusión del Plan de formación en un programa de especialización de una duración superior. Hasta un máximo de 10 puntos.

— Pertener al sistema sanitario de Euskadi, tratarse de profesionales de la salud que hubiesen finalizado su especialización como residentes en los dos últimos años o tener la licenciatura ENI de enfermería: hasta un máximo de 20 puntos.

2.— Dentro del respeto a las cuantías máximas establecidas en el artículo 6 y del presupuesto presentado, que tendrá la consideración de máximo financiable, la concreta determinación de la dotación de la beca se efectuará en función del período de duración del Plan de formación para cuya financiación se solicita y el coste de la vida en los lugares en que habrá de desarrollarse. La dotación de la ayuda se determinará en función de la necesidad de gasto para el correcto desarrollo del Plan de formación.

**Artículo 12.**— Resolución.

1.— La convocatoria será resuelta por el Viceconsejero de Sanidad, a propuesta de la Comisión de Valoración.

2.– Ebazpenak onuradunen zerrenda, emandako laguntza-mota (beca edo diru-laguntza) eta horren zenbatekoa adieraziko ditu.

3.– Hartutako ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta bost hilabeteko epean. Ebazpenarekin batera, onuradun bakoitzari dagokion onarpen-agiria bidaliko zaio, bete ostean Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzari itzuli beharko diona.

4.– Epe horretan dagokion ebazpenik jakinarazi ez bada, interesdunek beraien eskabideak ukatu egin direla ulertu beharko dute, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

5.– Osasun sailburuordearen ebazpenaren aurka interesdunek gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango dute Osasun sailburuari zuzenduta, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik, betiere, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

6.– Eskabideari ezezkoa ematen bazaio, aurkeztutako agiriak berreskuratzeko epea hilabetekoa izango da, ebazpena argitaratzen den egunetik, betiere, ebazpena ez bada errekurritua izan. Errekurtsua aurkezten bada, epea ebazpen ezetsia jakinarazten denetik hasiko da.

### 13. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Bekak edo laguntzak jasotzen dituzten onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Emandako beca edo laguntza onartzea. Zentzu horretan, ebazpena jasotzen denetik hasita hilabeteko epean Osasun Saileko Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzari ez bazaio aurreko artikuluan 3. idatz-zatian aipatzen den onarpen-agiria helarazten, beca edo laguntzari uko egiten zaiola ulertuko da.

b) Beka edo laguntza eman den helburu zehatzetarako erabiltzea.

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eskura jartzea honako deialdi honen bidez emandako diru-laguntzak direla eta euren funtzioak betetzeko eskatu ahal izango duten informazioa.

d) Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzari eskabidean adierazitako datuen edo zirkunstantzien aldaketan berri ematea. Bereziki 7. artikuluan begietsitako bateragarritasun-araubideari eragiten diotenak.

e) Onuradunek beren prestakuntza-jardueren garapeneri buruzko txosten bat bidali beharko dute hiru hilatik behin.

2.– La Resolución expresará la relación de personas beneficiarias, el tipo de subvención concedida (beca o ayuda económica) y su respectivo importe.

3.– La Resolución adoptada será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco, en el plazo de cinco meses a partir de la finalización del plazo de presentación de solicitudes. A la persona con la resolución se enviará a cada beneficiario, el correspondiente documento de aceptación que deberá remitir cumplimentado a la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria.

4.– Si transcurrido dicho plazo no se ha la correspondiente Resolución, los interesados podrán entender desestimada su solicitud a los efectos de lo establecido en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

5.– Contra la Resolución del Viceconsejero de Sanidad, podrán las personas interesadas interponer recurso de alzada ante el Consejero de Sanidad, en el plazo de un mes a partir de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con lo establecido en los artículos 114 y siguientes de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre.

6.– El plazo para retirar la documentación aportada con la solicitud, en los casos de denegación de la ayuda, será de un mes a partir de la publicación de la correspondiente Resolución, siempre que no se hubiese recurrido la misma. En caso de presentarse recurso, el plazo comenzará a contar desde la notificación de la resolución desestimatoria.

### Artículo 13.– Obligaciones de personas beneficiarias.

Las personas beneficiarias de las becas o ayudas deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la beca o ayuda concedida. En este sentido, si en el plazo de un mes, a contar desde su recepción, no remitiera a la Dirección de Planificación y Ordenación sanitaria el documento de aceptación a que se refiere el apartado 3 del artículo anterior, se entenderá que renuncia a la beca o ayuda.

b) Utilizar la beca o ayuda para el destino concreto para el que ha sido concedida.

c) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que les sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de la subvención recibida con cargo a esta convocatoria.

d) Comunicar a la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria cualquier variación de los datos o circunstancias que se reflejaron en la solicitud. Especialmente aquellas que afecten al régimen de compatibilidad contemplado en el artículo 7.

e) Las personas beneficiarias deberán enviar un informe trimestral sobre el desarrollo de sus actividades de formación.

**14. artikulua.**– Ordainketa.

Ematen diren beka eta laguntzen ordainketa zatika egingo da, era honetan:

Emandako diru-laguntza osoaren ehuneko hirurogeita hamabosteko (% 75) lehen ordainketa 12.3 eta 13.a artikuluetan aipatzen den onarpen-agiria behar bezala beteta jaso eta berehala emango da.

Gainontzekoa, prestakuntza-plana amaitu eta gehienez bi hilabeteko epean onuradunak hurrengo artikuluan zehazten diren agiriak itzuli ostean.

**15. artikulua.**– Beken eta laguntzen justifikazioa.

Beka eta laguntzen onuradunek diru-laguntzari emandako erabilera justifikatu behar dute, Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzari ondoko agiriak bidaliz:

## 1.– A) modalitatean emandako beka eta laguntzak:

## a) Bekak:

– Bukarako memoria, egindako prestakuntza-jarduere deskribapena eta zentro hartzailearen irakaskuntza-kalitatearen balorazioarekin.

– Zentroak emandako aprobetxamendu-ziurtagiria edo -titulua.

## b) Laguntzak:

Beketarako aipatu diren agiriez gain, prestakuntza-planak sortutako gastuen zerrenda eta justifikatu beharreko gastuen faktura originalak (bidaiak, matrikulak, ostatuak eta gastu bereziak) ere aurkeztu beharko dira.

## 2.– B) modalitatean emandako beka eta laguntzak:

## a) Bekak:

– Bukarako memoria, egindako jarduerekin eta lortutako helburuekin (deialdi publiko eta pribatuetara aurkeztutako ikerketa-proiektuak, kongresuetako aurkezpenak, argitalpenak, eta abar), eskabidea abalatu zuen profesionalaren oniritziarekin.

– Aprobetxamendu-ziurtagiriak edo zentroek emandako tituluak, ikastaroak edo egonaldiak egin badira.

– Lanaren emaitzak argitaratu badira, argitalpen honen separatak edo kopiak bidali beharko dira.

## b) Laguntzak.

– Beketarako aipatu diren agiriez gain, gastu osoen zerrenda eta justifikatu beharreko gastuen fakturen originalak ere aurkeztu beharko dira: bidaiak, matrikulak, ostatuak, material-erostea, eta abar.

**16. artikulua.**– Diru-laguntzak emateko baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza emateko aintzat hartutako baldintzen aldaketa orok, betiere diru-laguntzaren xedea betetzat jotzen denean eta, hala dagokionean, beste diru-lagun-

**Artículo 14.**– Abono.

El pago de las becas y ayudas que se concedan se efectuará, fraccionadamente, del siguiente modo:

Un primer pago por importe equivalente al setenta y cinco (75%) de la dotación total de la subvención, se librará con carácter inmediato una vez recibido, debidamente cumplimentado, el documento de aceptación a que se refieren los artículos 12.3 y 13.a.

El resto tras la remisión por la persona beneficiaria, en el plazo máximo de dos meses tras la finalización del Plan de formación, de la documentación que se indica en el artículo siguiente.

**Artículo 15.**– Justificación de las becas y ayudas.

Las personas beneficiarias de las becas y ayudas quedan obligadas a justificar el destino dado a la subvención mediante el envío a la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria de la siguiente documentación:

## 1.– Becas y ayudas concedidas en la modalidad A):

## a) Becas:

– Memoria final con una descripción de las actividades de formación realizadas y una valoración de la calidad docente del Centro receptor.

– Certificado de aprovechamiento o título expedido por el Centro receptor.

## b) Ayudas:

Habrá de remitirse además de la documentación indicada para las becas Relación de gastos totales generados por el plan de formación y originales de las facturas de los gastos a justificar, (Viajes, matrículas, alojamientos y gastos extraordinarios).

## 2.– Becas y ayudas concedidas en la modalidad B):

## a) Becas:

– Memoria final que contenga las actividades realizadas y los resultados conseguidos (proyectos de investigación presentados a convocatorias públicas o privadas, presentaciones en congresos, publicaciones, etc.), con el Visto Bueno de la persona que avaló la solicitud.

– Certificados de aprovechamiento o títulos expedidos por los centros, en caso de haber realizado cursos o estancias.

– Si los resultados del trabajo han consistido en publicaciones, se enviarán separatas o copias de éstas.

## b) Ayudas.

– Habrá de remitirse además de la documentación indicada para las becas una relación de gastos totales y originales de las facturas de los gastos a justificar: viajes, matrículas, alojamientos, adquisición de material etc.

**Artículo 16.**– Alteración de las condiciones de la subvención.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda que no se incumple el objetivo de la ayuda, y

tza batzuen lorpena ere aintzat hartzen denean, dirulaguntza eskaintzeko ebazpenaren aldaketa ekar dezake ondorioztat. Horretarako, Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzak laguntza gutxitzeko ebazpena emango du, eta bertan laguntzen diru-zenbatekoa doitu egingo da.

**17. artikulua.**— Ez betetzeak.

Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginak, hots, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu zue-nak, ezarritakoaren arabera, batetik, eta, bestetik, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak, hots, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren bermea eta sarreren araubidea erregulatzen duenak, ezarritakoarekin bat eginez, onuradunak ez baditu laguntza eskuratzeko agindu honetan ezarritako baldintzak, helburuak eta epeak betetzen, laguntza beste helburu baterako erabiltzen badu edo aprobetxamendu akademikoa ez bada nahikoa, prozedura-izapide egokiak bideratu ostean, laguntza eskuratzeko eskubidea galdu duela emango da aditzera. Horretaz gainera, ordura arte eskuratutako diru-zenbatekoak gehi horien legezko interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dizkio, bidezko gainerako ekintzen kalterik gabe. Aipatu diren diru-zenbateko horiek, ondorio gutxietarako, diru-sarrera publikotzat joko dira.

Ez betetzeagatik txostenaren hasierarako eta ebazpenerako aginpideduna Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendaria izango da.

**AZKEN XEDAPENAK**

**Lebenengoa.**— Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta bere aurka interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Osasun sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusi-ko Administrazioarekiko Auzietako Salan, aipatutako aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

**Bigarrena.**— Agindu honek aurreikusi gabeko guztian, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak xedaturikoa aplikatuko da, urtarrila-ren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazkeraren arabe-ra.

**Hirugarrena.**— Xedapen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko martxoaren 21a.

Osasun sailburua,  
GABRIEL M.<sup>a</sup> INCLÁN IRIBAR.

en su caso, la obtención concurrente de otras ayudas, podrá dar lugar a la modificación de la subvención. A estos efectos, por la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria se dictará la oportuna Resolución de minoración, en la que se reajustará la cuantía de la subvención concedida.

**Artículo 17.**— Incumplimientos.

De acuerdo con lo establecido en el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre y en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en el supuesto de que la persona beneficiaria incumpliere los requisitos, condiciones y plazos establecidos en esta Orden, el destino de la ayuda o el aprovechamiento académico fuese insuficiente, se declarará, previa la sustanciación de los trámites procedimentales oportunos, la pérdida del derecho a la percepción de la ayuda y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades ya percibidas con sus intereses legales, sin perjuicio de las demás acciones que procedan. Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a todos los efectos.

Será competente para el inicio y resolución del expediente por incumplimiento la Directora de Planificación y Ordenación Sanitaria.

**DISPOSICIONES FINALES**

**Primera.**— Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán las personas interesadas interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Sanidad, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

**Segunda.**— En todo lo no previsto en la presente Orden será de aplicación lo establecido en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común en la redacción dada por la Ley 4/1999 de 13 de enero.

**Tercera.**— La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de marzo de 2006.

El Consejero de Sanidad,  
GABRIEL M.<sup>a</sup> INCLÁN IRIBAR.



## I. ERANSKINA

## PRESTAKUNTZA-BEKAREN ESKABIDEA

## DATU PERTSONALAK

I. abizena: ..... 2. abizena: .....  
Izena: .....  
Helbidea: .....  
Herria: ..... Probintzia: ..... PK: .....  
Telefonoa: ..... E-maila: .....  
Jaiotze-data: ..... NAN: .....

Beste helbide bat, badaezpada:

Helbidea: .....  
Herria: ..... Herrialdea: ..... PK: .....  
Telefonoa: .....

BANKU-DATUAK: II. eranskinean agertzen den Hirugarren Interesdunaren Datuen Alta-inprimakia bete.

## DATU AKADEMIKOAK

Titulua: .....  
Unibertsitatea edo Zentroa: .....  
Especialitatea: .....  
Unibertsitatea edo Zentroa: .....  
Ikasketen hasiera-urtea: ..... Ikasketen amaiera-urtea: .....  
Lizentziatura-urtea: ..... Doktorego-urtea: .....  
Tesi edo tesinaren izenburua: .....  
Graduatuondoko bestelako ikasketak: .....

## DATU PROFESIONALAK

Lan-zentroa: ..... Herria: .....  
Zerbitzua: .....  
Betetako lanpostua: ..... Kontaktatzeko Tel.: .....

Lanpostuaren izaera: Finkoa ..... Behin-behinekoa: ..... Bestelakoa:

Sarrera-data: ...../...../.....

Hileko ordainsari garbia:.....euro

Eusko Jaurlaritzari lehenago ere laguntzarik eskatu diozu?

Baiezko kasuan: .....

Urtea: ..... Kontzeptua: .....

Eman zizun? Bai  Ez  («x» batez markatu)

## EGIN NAHI DUZUN PRESTAKUNTZA-JARDUERARI BURUZKO DATUAK

(Jarduera bakoitzeko ale bat erabili)

Jarduera-mota (ikastaroa, egonaldia, eta abar) eta izena:

Zentroa: .....

Departamentua: .....

Helbidea: .....

Herria: ..... Probintzia: .....

Herrialdea: ..... Posta-kodea: .....

Telefonoa: ..... Faxa: ..... e-maila: .....

Jarduera-garaiko egoitza: .....

Helbidea: .....

Herria: ..... Herrialdea: ..... PK: .....

Telefonoa: ..... Faxa: ..... e-maila: .....

Hasiera-data: ..... Amaiera-data: .....

Ordu teoriken kopurua: ..... Ordu praktikoen kopurua: .....

Orduen banaketa: .....

Tutorea (hala badagokio): .....

## JARDUERAREN AURREKONTUA

Matrikula: .....euro

Tokialdaketak: .....euro

Ostatua: .....euro

Mantenua: .....euro

Familiako gastuak: .....euro

Bestelako gastuak (zehaztu): .....euro

Eskatutako kopurua .....euro

## BESTELAKO FINANTZAZIO-ITURRIAK

Bestelako finantzazio-iturririk baduzu?  Bai  Ez («x» batez markatu)

Zeintzuk? Zenbatekoa

..... euro

..... euro

Bestelako laguntzarik eskatu duzu?  Bai  Ez («x» batez markatu)

Zein erakunderi? Zenbatekoa, guztira: ..... Eman: Bai/Ez

..... euro .....

..... euro .....

Erantsitako agiriak («x» batez markatu)

NAN

Curriculum Vitae-a.

Prestakuntza-plana.

Errolda-ziurtagiria.

Hirugarren Interesdunaren Alta (II. eranskina).

Zinpeko aitortpena

Ikerketa Sustatzeko Unitateko koordinatzailearen txostena.

Ikerkuntza Batzordeko presidentearen txostena.

Zentroko zuzendariaren baimena.

DBLOren 5. klausula

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez, jakinarazten zaizu inprimaki honetan jarri dituzun datu pertsonalak «Ikerkuntza, ebaluazio sanitarioa eta garapen profesionala» izeneko fitxategian sartuko direla. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzaren ardurapean dago fitxategi hori.

Honakoa da fitxategiaren helburua: Osasun Sailak deituriko irakaskuntza, prestakuntza eta ikerkuntzarako laguntza-eskabideen eta segimenduaren gestioa, bai eta gizabanakoen ibilbide zientifikoaren eta entitateen prestakuntza-jardueren segimenduaren gestioa ere. Gainera, etengabeko prestakuntza kreditatzeko eta ikerkuntza-arlo eta -ildoak kudeatzeko ere erabiltzen da.

Nahi izanez gero, datuak eskuratu, zuzendu, deuseztatu edo aurkatzeko eskubidea erabil dezakezu. Horretarako, idatzi bat bidali beharko diozu Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzari (Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Eskabidea egin ez duen pertsona fisikoren baten datuak jarri badituzu, jarri aurretik aurreko paragrafoan adierazitakoaren berri eman beharko diozu.

–n, (e) ko ren (e) an

Eskabide-egilearen sinadura

OSASUN PLANGINTZA ETA ANTOLAMENDUKO ZUZENDARIA

ANEXO I

SOLICITUD DE BECA DE FORMACIÓN

DATOS PERSONALES

1er.Apellido: ..... 2do.Apellido:.....

Nombre: .....

Domicilio: .....

Localidad: ..... Provincia..... CP: .....

Teléfono: ..... e-mail .....

Fecha de nacimiento: ..... DNI.....

Otra dirección para localizarle: .....

Dirección: .....

Localidad: ..... País: ..... CP:.....

Teléfono: .....

DATOS BANCARIOS: cumplimentar el impreso de Alta de Datos de Tercero Interesado que aparece en el anexo II.

DATOS ACADEMICOS

Título: .....

Universidad o Centro: .....

Especialidad: .....

Universidad o centro: .....

Año inicio estudios: ..... Año fin estudios: .....

Licenciatura año: ..... Doctorado año: .....

Título de la tesis o tesina: .....

Otros estudios de postgrado: .....

DATOS PROFESIONALES

Centro de trabajo: ..... Localidad.....

Servicio: .....

Puesto desempeñado: ..... Tlfno. de contacto .....

Carácter del puesto: Fijo: ..... Interino: ..... Otro: .....

Fecha de Ingreso: ...../...../.....

Retribución neta mensual ..... euros

¿Ha solicitado con anterioridad alguna ayuda económica del Gobierno Vasco?:

En caso afirmativo:

Año: ..... Concepto:

¿Se le concedió?: Sí ..... No ..... (Marcar con una «x»)

## DATOS DE LA ACTIVIDAD FORMATIVA QUE DESEA REALIZAR

(Utilizar un ejemplar para cada actividad)

Tipo de actividad (curso, estancia, etc.) y denominación: .....

.....

Centro: .....

Departamento: .....

Dirección: .....

Localidad: ..... Provincia: .....

País: ..... Código Postal: .....

Teléfono: ..... Fax: ..... e-mail: .....

Residencia durante la actividad:

Dirección: .....

Localidad: ..... País: ..... CP: .....

Teléfono: ..... Fax: ..... e-mail: .....

Fecha comienzo: ..... Fecha finalización: .....

N.º horas teóricas: ..... N.º horas prácticas: .....

Distribución horaria: .....

Tutor/a (en su caso): .....

## PRESUPUESTO DE LA ACTIVIDAD

Matrícula: ..... euros

Traslados: ..... euros

Alojamiento: ..... euros

Manutención: ..... euros

Gastos familiares: ..... euros

Otros gastos (especificar): ..... euros

Cantidad solicitada ..... euros

## OTRAS FUENTES DE FINANCIACION

¿Dispone de otras fuentes de financiación?  Sí  No (Marcar con una «x»)

¿Cuáles?: ..... Importe

..... euros

..... euros

¿Ha solicitado otras ayudas?:  Sí  No (Marcar con una «x»)

¿A qué organismos?: ..... Importe total ..... Concedida: Sí/No

..... euros

..... euros

*Documentación que se adjunta (Marcar con una «x»):*

- DNI.
- Curriculum Vitae.*
- Plan de formación.*
- Certificado de empadronamiento.*
- Alta de tercero interesado.(anexo II)*  *Declaración jurada*
- Informe del Coordinador de la Unidad de Apoyo a la Investigación.*
- Informe del Presidente de la Comisión de Investigación.*
- Autorización del Director del Centro.*

*Cláusula del artículo 5 LOPD*

*En cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le comunica que los datos personales que Vd. aporta en este impreso serán incluidos en el fichero «Investigación, evaluación sanitaria y desarrollo profesional», bajo la responsabilidad de la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco.*

*Su finalidad es la gestión de las solicitudes y seguimiento de las ayudas para docencia, formación e investigación convocadas por el Departamento de Sanidad, así como el seguimiento de la trayectoria científica de los individuos y de las actividades de formación de las entidades. Además, se utiliza para acreditar la formación continuada y gestionar áreas y líneas de investigación.*

*Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiendo un escrito a la Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria del Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco, en C/ Donostia, n.º 1. 01010 Vitoria – Gasteiz.*

*En caso de que se incluyan datos de carácter personal referentes a personas físicas distintas de la que efectúa la solicitud, deberá, con carácter previo a su inclusión, informarles de lo contenido en los párrafos anteriores.*

En \_\_\_\_\_ a \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_ de \_\_\_\_\_

*Firma del solicitante*

ILMA. SRA. DIRECTORA DE PLANIFICACIÓN Y ORDENACION SANITARIA.

## II. ERANSKINA / ANEXO II

DATUEN ALTA / HIRUGARREN INTERESDUNA  
ALTA DE DATOS / TERCERO INTERESADO

## HIRUGARRENAREN EZAGUPENERAKO DATUAK (A)

## DATOS IDENTIFICATIVOS DEL TERCERO (A)

(1) NAN/IFK

DNI/CIF .....

(2) Bi abizenak eta izena/Sozietatearen izena

Dos apellidos y nombre/Razón Social .....

## HELBIDERATZE-DATUAK (B)

## DATOS DE DOMICILIACION (B)

Helbidea

Dirección .....

Posta-kodea

Código Postal: .....

Udala

Población .....

Probintzia

Provincia: .....

## BANKUAREN DATUAK (C)

## DATOS BANCARIOS (C)

(1) Bankua/Banco

□□□□

(2) Agentzia/Agencia

□□□□

(3) KD/DC

□□□□

K. Korrontea / C. Corriente

□□□□□□□□

(4) Jabea/Titular

Bankuaren adostasuna  
Conforme bancoHirugarrenaren adostasuna  
Conforme terceroSailaren O.E.  
V.ºB.º departamentoKontabilitatearen O.E.  
V.ºB.º contabilidadSinadura eta zigilua (D)  
Sello y firma (D)Sinadura eta zigilua (E)  
Sello y firma (E)Baimendutako sinadura (F)  
Firma autorizada (F)Baimendutako sinadura (G)  
Firma autorizada (G)